

Haritza



ARITZ GALARRAGA

Asuntoaz dakien bati entzun nion, asuntoaz segur aski gehien dakienari –Jakoba Errekondo izeneko bati, ezaguna egingo zaizue agian–: haritza gora, haritza behera ibiltzen dutela gaur egunean gure agintariak –eta horrek ematen digula dauzkagun agintarien neurria–; baina, benetan, euskaldunontzat, lizarra dela zuhaitz, ejem, izarra –besteak beste, etxe inguruetan jartzen da, tximistak uxatzeko edo; to, superzuhaitza–. Zuzenki hazten omen da lizarra, haritzak oker egiten duen bitartean gora, nekez, hala-hola. Are: garai batean edozein zuhaitz izendatzeko erabiltzen zen haritz izendapena. Gauza gehiagori buruz hitz egiten jarraitu zuen –gaztainondoa dela kolonizatzailea, alegia espainola, nahiz Duzunaritze-Sarasketan geunden, Nafarroa Beherearen bihotzean–. Baina nik jada ez nion kasu gehiago egin. Ezin.

Ezen, ideia guztiz erakargarria egin zitzaidan: haritza, edozein zuhaitz izendatzeko terminoa; ondorioz Haritz, edo Aritz –hatxearen afera beste baterako utziko dugu–, edozein gizamodu, gizon edo gizatxar, izendatzeko antroponimoa, anglofonoek erabiltzen duten John Doe haren moduko bat, identifikatu gabeko pertsona bat, kaleko pertsona bat, don inorrez bat izendatzeko. Neronek askotan desio izan dut identitate neutroagoa eduki, hainbesteko kargarik izango ez lukeena, Jon, Jean edo Juan. Izenak eksklusibo egiten ninduela uste nuen lehen –orain izen bereko futbolari ugari dago–, batez ere kanpoan –gure klasean hiru ginen: Xubel, Kanpa eta, noski, Gala–. Egun hauetan ezagutu dut Haritz izena duen lehen euskalduna, erregistroan Arich jarri zioten, 1969 urrun hartan, Nafarroako izen bat zelakoan pasa zena. 1969tik, beraz, eta gutxienez, gabiltza kalaka ematen, uszteko gure eksklusibotasunean. Baina orain jakin dudala edozein gizamodu izendatzeko erabil daitekeela Haritz, edo Aritz, has naiteke nire izenarekin ere berradiskidetzen. ●

ADUR LARREA
www.adurlarrea.com



ADUR

“KLIMA ALDAKETARI AURRE EGITEKO EKINTZA ZEHATZAK EGIN BEHAR DITU BATZORDEAK”

EUROPAKO LEGEBILTZARRAK EUROPAKO BATZORDEARI EGINDAKO ESKAERA

Madriren abenduaren 2tik 13ra egingo den klima larrialdiaren aurkako goi bilera dela eta, Europako Legebiltzarrak klima larrialdia aldarrikatu du. 429 boto aldekoak izan dira, 225 aurkakoak eta 19 abstentzio. Eskuin muturreko taldeek aurka egin dute eta hauen Europako Kontserbadore eta Erreformisten taldearen esanetan, “dena da asmakizun bat”.

BRUSELA (2019/01/22)

